

Auzoak, Basoka berezia eta Zuloaga Plazako festa protagonistak maiatzaren 25, 26 eta 27ko Olatu Talka jaialdian

25 musikari baino gehiagok parte hartuko dute Zorionak Dylan ekimenean

Maiatzaren 25, 26 eta 27an izango den Olatu Talka jaialdiaren programa osoa aurkeztu da gaur, eta bertan aurtengo jaialdiko berrikuntzen eta ekitaldi nagusien berri eman da. **Eneko Goia** alkatea, **Jon Aizpurua** Olatu Talka jaialdiko zuzendaria, **Gratxina Lertxundi** Gure Bazterrak musika promotorako kidea, **Ekain Olaizola** arkitektoa eta **Elene Carreto** dantzaria izan dira prentsaurrekoan.

Eneko Goia alkateak azaldu duenez, 9. Olatu Talka indartsu dator, herritarren parte hartzearekin hiria eraikitzeko, eta herritarren **parte-hartzea** hitz hutsa ez dela azaltzeko hainbat **datu** eman ditu:

- **300 talde edo eragile** dabilta eta ibiliko dira hiru egun horietan hiria era askotariko ekintzaz betetzen.
- Talde horien guztien bidez, **2.000 lagunek** baino gehiagok parte hartuko dute **era aktiboan** Olatu Talkan.
- **Mota guztietako ekitaldiak** izango dira: dantza, musika, artea, zientzia, historia... Adin guztientzat.
- **20 ekitaldi** baino gehiagotan **izen-emateak** izan dira, eta **1.100 lagunek** baino gehiagok eman dute izena.

Hala, Eneko Goia alkateak jaialdiaz gozatzeri **kalera ateratzeko deia** egin die herritarrei, eta bederatzigarren Olatu Talka urteurren biribilaren bezpera egokia izatea opa zuen.

Jon Aizpurua, Olatu Talkako zuzendariak jaialdiak hiri osoa hartuko duela azpimarratzeaz gain, antolakuntza aldetik aurtun izandako aurrerapausoen berri eman du. Alde batetik, jakinarazi zuen Olatu Talkak **babesle nagusi bat** izango duela: **Keler**. Garagardo enpresarekin lortutako hitzarmenaren ondorioz, Keler izango da jaialdiko babesle nagusia eta gainera hitzarmena bi urtetarako da. Horren bidez jaialdiak sendotasuna lortu duela eta are gehiago indartzeko oso ibilbide interesgarria dela esan du. Halaber, **bigarren mailako beste babesle** batzuk ere sartu direla aipatu du. Hitzarmen horrekin lotuta, barrak eta food truck-ak jarriko dira hiriko hainbat gunetan, eta igandean, Zuloaga Plazan food truck gunea izango da. Bestetik, Aizpurua gogorarazi du iaz **iraunkortasunaren** inguruko zilarrezko plaka jaso zuela Olatu Talkak eta aurtun **konpromiso** horri eutsi nahi diola. Horretarako, besteak beste, erabiliko diren edalontzi guztiak organikoak izango dira, artoz egindakoak, eta konpostagarriak, edukiontzi organikoan bota beharrekoak. Horrez gain, jaialdian energia berriztagarriak izango dira nagusi: eguzki sorgailuak erabiliko dira, bestelako sorgailuak baztertu dira eta abar. Berrerabilera eta ingurumenak ere leku garrantzitsua izango du, instalazio artistikoetan, berrerabilera eta bigarren eskuko azoketan, itsas zaborra out ekimenean, naturarekin lotutako hitzaldietan eta abar.

Basoka: Zorionak Dylan!

Miramongo basoa, maiatzaren 26an, 18:00-21:00

Gatxina Lertxundi, Gure Bazterrak promotorako kideak aurtengo Basoka jaialdi berezia aurkeztu du. 2015eko Olatu Talka jaialdian, lehenengo aldiz egin zen Basoka, bi helburu nagusirekin: alde batetik, Miramongo basoa ezagutarazi eta kultur jardueren agertoki gisa duen potentziala erakustea, eta bestetik, musikarien eta publikoaren arteko harreman sendoa berreskuratzea, jaialdi erraldoien hoztasunetik ihesi. Formatu akustikoan oinarritutako emanaldiak gertutasun eta gordintasunez aurkezteko gunea izan da Basoka.

Aurtun Basokari bestelako jite edo ukitua eman nahi izan zaio, eta horregatik, urteurren bat hartu da oinarri. Hilaren 24an **Bob Dylanek 77 urte** beteko ditu, eta bi egun geroago, **Zorionak Dylan!** emanaldia izango da Miramongo basoan. **25 musikari** baino gehiago elkartuko dira Miramongo basoan, eta Dylanen 25 abesti eskainiko dituzte, norberak bere ikuspegi eta estiloaren arabera. Basokan izango dira, besteak beste, **Joseba Irazoki, Ane Leux, Eneritz Furyak, Iker Lauroba, Mikel Azpiroz, Rafael Berrio** eta abar.

Kontzertour

40 kontzertu hiru egunetan

Basoka ez da izango musikazaleentzat aukera bakarra. Olatu Talka musikaz beterik dator: 40 kontzertu baino gehiago izango dira hiru egunetan: Zuloaga Plazan, Boulevardean, Cervantes Plazan, Zurriola Pasealekuan, Kontxako arkupeetan, Nautikoan, Harria parkean, Aitzol parkean eta Txaparrene Pasealekuan.

Añorga, auzolana

Maiatzak 25, 26 eta 27

Ekain Olaizola arkitektoak Añorgan izango diren ekimenen berri eman du, egitarau oparoa izango baita Añorgan: Bertso eskola, bertso emanaldiak, kontzertuak, Errementari filmaren emanaldia, Dantzari Eguna, herri bazkaria, haurrentzako jolasak...

Hala ere, ekitaldi bereziena igandean izango da, aspaldi hasitako ekimenaren amaiera gisa. Izan ere, Añorgako plaza (Cementos Rezolarena da eta Añorgako Kultur eta Kirol Elkarteak du erabilera eskubidea) "inauguratu" egingo da. Nolabait izena eta izana emango zaio plaza horri. Alde batetik, plaza horretan hainbat esku-hartze egingo dira (egiten hasi gara jada), plaza hori nolabait txukuntzeko eta atontzeko, herritarren erabilera beharretara egokituz. Beste alde batetik, plazari izena emango zaio, orain arte ez baitu izenik izan. Horretarako guztirako Añorgan bertan parte-hartze prozesua bideratu du Añorga Kultur eta Kirol Elkarteak, eta herritarrek proposamenak egin dituzte plazari izena eta izana emateko. Prozesua garrantzitsua da Añorgarentzat, izan ere, plazek berebiziko garrantzia dute edozein komunitaterentzat. Plazak espazio publikoak dira, herritarrek erabiltzeko espazio publikoak, eta oso garrantzitsua da plaza horien erabilera moldeak eta arauak herritarrekin adostea eta haiekin batera bultzatzea.

Hiriko beste hainbat gunetan ere izango dira ekimen interesgarri asko. Hemen adibide batzuk:

Made in Altza:

Harria Parkea, maiatzak 26, 21:00-00:00

Altzako Harria parkean Altzarekin lotutako film laburren proiektioa izango da, Kristonkino elkarteak bultzatuta, eta gainera egun horretan bertan Txirrita Bertsolariaren Pasealekuan era analogikoan grabatutako film laburra ere eskainiko da.

Zeramika sorkuntza berezia

Aita Orkolaga Pasealekua 46, maiatzak 26, 16:00-21:00

Igeldon, Urdermouten egoitzan, paper eta buztinezko labe bat eraikiko da, pieza handi baten inguruan, eta zeramika pieza handi bat sortuko da era ikusgarrian.

Merkatuaren eguna

Alfonso XIII.a Plaza eta frontoia, maiatzak 26, 10:00-22:00

Antiguako Merkatu zaharrean urtean zehar eragileek egiten dituzten lanen erakustoki bihurtuko da Antigua. Eragile askoren lanarekin egun osoko egitaraua antolatu dute bertan.

Itxiera festa

Zuloaga Plaza, maiatzak 27, 10:30-20:00

Elene Carreto dantzariak, itxiera festaren berri eman du. Goizean goizetik artearekin lotutako ekimenak izango dira: marrazkilariz beteko dira inguruak **Donostia Sketch** marrazketa maratoiarekin, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak **estudioa kalera** aterako du, Elena Scaratiren **Flintlove** instalazio artistikoa...

Musika eta dantza emanaldiek ere leku garrantzitsua izango dute Zuloaga plazan: goizean **Izarrak Plazara** ekimeneko 12-17 urteko gaztetxoek haien talentua erakutsiko dute oholza gainean, eguerdian **Beira** taldeak kontzertua eskainiko du, **Nebraska** taldeak dantza emanaldia egingo du eta eguna amaitzeko kontzertu sorta izango da: **Indidxabak**, **Last fusion** eta **Mushkum**. Dantza emanaldiak aipatuta, Elene Carreto eta Beñat Urritiaren **Desafioa 19:55** (15:00etan) ezin ahaztu.

Baina igandeko **ekitaldi nagusia 13:30ean** izango da Zuloagan bertan: **bortizkeria sexistaren aurkako ekimena** egingo baita. Harituz elkartearen ekimenez milaka lagunek ehundutako 4 km-ko bufanda oinarri hartuta, dantza ikuskizun bat prestatu dugu ikasleekin. Ekimen horretan Olatz Salvador musikari donostiarraren **Korapilatzen** kanta erabiliko da, eta guztion artean bortizkeria sexista arbuatuko da. Ekimen honetan **parte-hartzera deitu** ditu herritar guztiak eta Olatu Talkako eragileei dei berezia egin die.